

ARTXIPI

Edo Arzak-txipi.

Aintzinean, Artzakarekin bat egiten zuen.
Artxipi izena dauka ere San Marko aldean
dagoen harrobiak.

BORDA

Arzak etxearen itzala handia zen, baserri
honen jatorrizko izena
Borda-Arzak baita.

TXURDIÑENE

Baserri honen ondoan
-eta zabortegiaren azpian lurperatuta-
Irumugarrieta mugarria dago, hots,
Altza, Errenteria eta Astigarragaren
arteko mugarria.

MARTITEGI

ALTZAKO EUSKAL JAI AK - 96

KATALIÑENE

Altzako baserri izenetan emakume izenen presentzia, -jabetzaren adierazle-, nabaria da: Elenategi, Isabeletxe, Julimasene, Juanatxone, Marijuandegi, Juanaene, eta Kataliñene bera

ILLARREGI

Illarradi baserriaren izena
1553. urtean aipatzen da lehenbiziko aldiz.

SIUS

Altzako oinetxe zaharretako bat. San Martzial parrokiaren sorreran (1390 urtean) parte hartu zuenetako bat.

MIRASUN

ETXEERRI

Etxeberri izenarekin Altzan bi baserri daude:
bata Etxeberri-Serres, hauxe bera;
bestea, Etxeberri-Kosta, Oletan zegoena.

Miranda

Hiru Miranda ditugu Altzan. Hemen, zuhaitz hauen artean,
Miranda-goya baserria zegoen.
Miranda-bea, ordea, Antxo aldean; eta
Mirandaburu Sarruetan (Martutene).

GARBERA-BEA

Agiri zaharretan (1390), La Carbuera izenarekin
agertzen zaigu, gaskoin kutsu handia duena.
Gaur egun, Bixente Barandiaran bertsolaria
bertan bizi da.

MERKADER

Zuhaitz sorta honek, beste zenbait kasutan bezalaxe,
hemen baserri bat zegoela adierazten digu.

Merkader, hain zuzen, Alzako
zaharreneko bat zen.

PARIS

Baserritarren artean baziren ere izen exotikoak
maite zituztenak (Londres, Alejandria...).

Hau horietako bat dugu.

AUDITZ

Edo Aduriz.

1794-1825 urte bitartean, -eliza berria egiten zuten bitartean, alegia- parroko sagraioa baserri honetan zaindu zen.

MARTILLUN

Sagardotegi ospetsua, Txirritak ondo
ezagutzen zuena.